OTRAS DISPOSICIONES

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

1602

RESOLUCIÓN 39/2022, de 4 de abril, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Anexo de Adhesión de Leartiker, S. Coop. al Convenio de colaboración para la creación del Consorcio Científico-Tecnológico Vasco – Basque Research and Technology Alliance.

Habiéndose suscrito por el Consorcio Científico-Tecnológico Vasco-Basque Research and Technology Alliance, BRTA el Convenio referenciado, del que forma parte la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Anexo de adhesión de Leartiker S. Coop. al Convenio de colaboración para la creación del Consorcio Científico-Tecnológico Vasco – Basque Research and Technology Alliance, que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de abril de 2022.

El Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 4KO 39/2022 EBAZPENARENA

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 39/2022, DE 4 DE ABRIL, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

ERANSKINA, "BASQUE RESEARCH AND TECHNOLOGY ALLIANCE – EUSKAL PARTZUERGO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA" SORTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENERA LEARTIKER KOOP. S. ATXIKITZEKOA

ANEXO DE ADHESIÓN DE LEARTIKER S. COOP. AL CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA CREACIÓN DEL CONSORCIO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO VASCO - BASQUE RESEARCH AND TECHNOLOGY ALLIANCE

Mendaro, 2021eko uztailaren 8a.

María Aranzazu Tapia Otaegui, "BRTA, Basque Research and Technology Alliance – Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoaren" izenean eta hura ordezkatuz.

Amaia Egia Arronategi, LEARTIKER KOOP. S. entitatearen izenean eta hura ordezkatuz.

Aldeek dokumentu honen bidez elkar behartzeko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

2019ko urtarrilaren 23an, Basque Research and Technology Alliance – Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa sortzeko lankidetza-hitzarmena (aurrerantzean, hurrenez hurren, «Partzuergoa» eta «Hitzarmena» esango diegu) sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, hamabi zentro teknologikok eta elkarlaneko lau ikerketa-zentrok, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2019ko otsailaren 6an, 26. zenbakian.

Hirugarrenak Partzuergora atxikitzeko eta sartzeko sistema ezartzen da Hitzarmenaren hamaseigarren klausulan, honela:

> «1.- Hitzarmen honi atxiki ahal izango zaizkio eta Partzuergoan txertatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuk edo sektore publikoko beste entitate batzuk, baita aurrez Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean txertatutako beste edozein ikerkuntza kooperatiboko zentro edo zentro teknologiko ere, Partzuergoaren Estatutuetan zehaztutako prozedurari jarraikiz.

Mendaro, 8 de julio de 2021.

María Aranzazu Tapia Otaegui, en nombre y representación del "Consorcio Científico-Tecnológico Vasco-Basque Research and Technology Alliance, BRTA".

Amaia Egia Arronategi, en nombre y representación de LEARTIKER S. COOP.

Las Partes, que se reconocen mutuamente capacidad jurídica y de obrar para obligarse mediante el presente documento,

El convenio de colaboración para la creación del Consorcio Científico-Tecnológico Vasco-Basque Research and Technology Alliance (en adelante y respectivamente, el "Convenio" y el "Consorcio"), fue suscrito el 23 de enero de 2019 entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la SPRI–Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, 12 Centros Tecnológicos y 4 Centros de Investigación Cooperativa, publicándose en el Boletín Oficial del País Vasco, nº 26, de fecha 6 de febrero de 2019.

El Convenio establece en su cláusula Decimosexta el sistema de adhesiones de terceros, con la correspondiente integración en el Consorcio, en los siguientes términos:

> "1.- Podrán adherirse a este Convenio e integrarse en el Consorcio otras administraciones públicas o entes integrados en el sector público, en particular la Diputaciones Forales, así como cualquier otro Centro de Investigación Cooperativa o Centro Tecnológico previamente integrado en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, conforme al procedimiento que determinen los estatutos del Consorcio.

2.- Agente bat Hitzarmenean atxikimendu soilaren bidez sartu ezin denean eta horretarako Hitzarmenaren baldintzaren bat aldatu behar denean, aldeek aho batez hartu beharko dute erabakia».

2.- Se requerirá unanimidad de las partes en el caso de que la incorporación de un nuevo agente al presente Convenio no pudiera tener lugar por la mera adhesión del mismo e implicase la necesidad de modificar alguno de sus términos.

Estatutuaren 38. artikuluan, Partzuergora kide berriak sartzeko erregulazio berezia ezartzen da, betekizun eta baldintza hauek xedatzen baititu:

«Partzuergora kide berriak sar daitezen, administrazioa, erakunde publikoa nahiz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean txertatutako edozein ikerkuntza kooperatiboko zentro edo zentro teknologiko izan gorabehera, honako hau beharko da:

a) Erakunde interesdunak eskaera aurkeztu beharko du.

b) Boto-eskubidea duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak onartu beharko du Batzar Nagusian.

c) Eskatzaileak Hitzarmena sinatu beharko du. Harpidetza horrekin, beste eranskin bat gaineratuko zaio Hitzarmenari. Bertan, eskatzaileak Partzuergora sartuta bere gain hartzen dituen betebeharrak ezarriko dira, urte naturala osatzeko falta den denborari dagokionez. Atxikitze-eranskinak zehaztuko du zenbat ordezkari izango dituen erakundeak Partzuergoaren organoetan, eta, xede horretarako, berriro esleituko da SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziari edo Partzuergoko agenteei Estatutuen 10.7 b) edo c) artikuluetan hurrenez hurren aitortutako boto-eskubideen ehunekoa.

d) Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atxikitze-egintza».

La incorporación de nuevos miembros al Consorcio tiene especial regulación en los Estatutos del mismo, artículo 38, que establece las siguientes condiciones:

"Para la incorporación al Consorcio de un nuevo miembro, sea administración, ente público o Centro de Investigación Cooperativa o Centro Tecnológico perteneciente a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, será necesario:

a) La solicitud de la entidad interesada.

b) La aprobación de la Asamblea General por mayoría absoluta del número legal de sus miembros con derecho a voto.

c) La suscripción por el solicitante del Convenio. Esa suscripción incorporará un nuevo anexo al Convenio en el que se determinarán las obligaciones que asume el solicitante con su incorporación al consorcio en el tiempo restante para completar el año natural. El anexo de adhesión determinará el número de representantes que corresponde a la entidad en los órganos del Consorcio, indicándose a tal efecto la reasignación de los porcentajes de derechos de voto reconocidos a SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial o a los Agentes consorciados, en su caso, en el artículo 10.7, b) o c), respectivamente, de estos Estatutos.

d) La adhesión se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco".

Halaber, Estatutuen 30.3.e) artikuluan berresten da Batzar Nagusiaren botoa nahitaezkoa dela:

«3.- Estatutu hauen 10.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzar Nagusiaren gehiengo osoak eman beharko du aldeko botoa, honako gai hauetan erabakiak har daitezen:

e) Kide berriak atxikitzea».

El voto preciso en la Asamblea General se afirma también en el artículo 30.3, e) de los Estatutos:

"3.- Será necesario el voto favorable de la mayoría absoluta del número de votos existentes en la Asamblea General, según lo establecido en el artículo 10.7 de estos Estatutos, para la adopción de acuerdos en las siguientes materias:

e) Adhesión de nuevos miembros".

Horren arabera,

LEHENENGOA.- LEARTIKER KOOP. S. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean foku Anitzeko Teknologia Zentroaren kategorian akreditatutako entitateak Partzuergora atxikitzea eskatu zuen 2021ko maiatzaren 14en, idatzi bidez.

En virtud de todo ello,

PRIMERO.- LEARTIKER S. COOP., entidad acreditada en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación en la categoría de Centro Tecnológico Multifocalizado, mediante escrito de fecha 14 de mayo de 2021, solicitó la adhesión al Consorcio.

BIGARRENA.- Partzuergoko Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen LEARTIKER KOOP. S. Partzuergora atxikitzea, 2021ko ekainaren 9ko bileran.

SEGUNDO. - La Asamblea General del Consorcio, en su sesión celebrada en fecha 9 de junio de 2021, aprobó la incorporación de LEARTIKER S. COOP. al Consorcio por unanimidad.

HIRUGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S. entitateak Hitzarmena sinatu du, eduki guztiak onartzearekin bat, eta, beraz, eranskin hau erantsi da.

TERCERO. - LEARTIKER S. COOP. suscribe el Convenio incorporándose el presente Anexo, asumiendo íntegramente sus contenidos.

LAUGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S. entitateak dagokion kopurua jarriko du, I+Gko diru-sarreren pisu erlatiboaren eta partzuergoan sartu zen dataren arabera. Partzuergoaren jardueraren finantzazioan parte hartzeko.

CUARTO. - LEARTIKER S. COOP aportará la cantidad que le corresponda en función del peso relativo de sus ingresos de I+D y de la fecha de incorporación al Consorcio, destinada a participar en la financiación de la actividad del Consorcio.

Datozen urteetan, LEARTIKER KOOP. S. entitateak dagokion kuota jarriko du, I+Gren ustiapeneko bere diru-sarrerek partzuergoko agente guztien kontzeptu horrengatiko diru-sarrera osoarekiko duten pisu erlatiboaren arabera. Partzuergoko agenteen artean urtero eguneratuko da hitzarmenaren seigarren klausularen 4. puntuan jasotako agente guztien ekarpena (Partzuergoaren urteko aurrekontuen % 40).

Los años siguientes LEARTIKER S. COOP. aportará la cuota que le corresponda en función del peso relativo de sus ingresos de explotación de la I+D respecto del ingreso total por este concepto del conjunto de Agentes consorciados. La distribución entre los Agentes consorciados de la aportación asumida por el total de Agentes, recogida en la cláusula Sexta, punto 4, del Convenio, consistente en el 40% de los presupuestos anuales del Consorcio, será actualizada anualmente.

Ekarpenak ordaintzeari dagokionez, Partzuergoaren Estatutuen 32. artikuluan jasotakoaren arabera, “administrazioen, erakunde publikoen eta Partzuergoko agenteen ekarpen ekonomikoak urte bakoitzeko lehen lau hilekoan zehar egingo dira”

En cuanto al abono de las aportaciones, según se recogen en el artículo 32 de los Estatutos del Consorcio, “Las aportaciones económicas de las administraciones, entes públicos y agentes consorciados se realizarán a lo largo del primer cuatrimestre de cada año”

LEARTIKER KOOP. S.-k bere gain hartuko ditu Hitzarmenaren zazpigarren klausularekin bat eginez erabakitzen diren salbuespenezko ekarpenak, aurreko paragrafoan ezarritako eta Partzuergoko gainerako agente kideentzat hasieran ezarritako obligazioa banatzeko ondorio berarekin.

LEARTIKER S. COOP. asumirá las aportaciones extraordinarias que sean acordadas conforme a la cláusula Séptima del Convenio con el mismo porcentaje de participación establecido en el párrafo anterior y con el mismo efecto de distribución de la obligación inicialmente establecida para el resto de Agentes miembros del Consorcio.

BOSGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S.-k, foku Anitzeko Teknologia Zentro gisa, honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain, hitzarmenaren 6. klausularen 6. puntuan zehaztutakoaren arabera:

a. Jarduera zientifiko-teknologikoari lotutako jardun-eremuan, Partzuergoko agenteek unitate zientifiko-teknologikoetan parte hartuko dute, Partzuergoaren Ikerketa Agenda egingo dute eta azpiegitura berezietan egiten dituzten inbertsio-proiektuen eta ikerketa-eremu berrietan bultzatutako gaitasunen berri emango diote Partzuergoari.

b. Talentuari lotutako jardun-eremuan, Partzuergoko agenteek zuzendaritza-postuen, kudeaketa-postuen eta ikertzaileen lanbide-karrerako planen eduki komunei jarraituko diete, 109/2015 Dekretuaren IV. Eranskinean araututakoan oinarrituta.

c. Ezagutzaren transferentziari lotutako jardun-eremuan, Partzuergoko agenteek merkatu-unitateetan parte hartuko dute, eta Partzuergoaren Transferentzia eta Merkatu Agenda egingo dute, konfidentzialtasunari, esklusibotasunari eta/edo jabetza intelektual eta industrialari lotutako

QUINTO. - LEARTIKER S. COOP., como Centro Tecnológico Multifocalizado, asume los siguientes compromisos, según lo especificado en la cláusula 6, punto 6 del Convenio

a. En el ámbito de actuación relativo a la Actividad Científico-Tecnológica, los Agentes consorciados participarán en las Unidades Científico-Tecnológicas, desarrollando la Agenda de Investigación del Consorcio que corresponda comunicando al Consorcio los proyectos de inversión en infraestructuras singulares y el impulso de capacidades en nuevos ámbitos de investigación que proyecten o realicen.

b. En el ámbito de actuación relativo al Talento, los Agentes consorciados seguirán los contenidos comunes de los planes de carrera profesional relativa a los puestos de dirección y gestión, así como del personal investigador, a partir de lo regulado en el Anexo IV del Decreto 109/2015.

c. En el ámbito de actuación relativo a la Transferencia de conocimiento, los Agentes consorciados participarán en las Unidades de Mercado y desarrollarán la Agenda de Transferencia y de Mercado del Consorcio que corresponda, sin perjuicio de los deberes de

betebeharrak edota Partzuergoko agenteek kontratu-loturen ondorioz hirugarrenekin beren gain hartutako edozein izaeratako beste betebehar batzuk galarazi gabe.

d. Komunikazioaren eta marketinaren eremuan, Partzuergoko agenteek Partzuergoak berak zehaztutako komunikazio- eta irudi-jarraibide komunak beteko dituzte, eta Partzuergoko agente bakoitzaren marka kokatzeko estrategiekiko bateragarritasuna bilatuko dute.

e. Jarduera ekonomiko-finantzarioaren eremuan, Partzuergoko agenteek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide gisa zehazten dituen 109/2015 Dekretuan aipatutako adierazleen betetzeari buruzko informazioa bidaliko diote Partzuergoari.

f. Euskarriaren eta balio erantsiko babes-zerbitzuen eremuan, Partzuergoko agenteek modu aktiboan hartuko dute parte Partzuergoaren organo eta eginkizunetan, pertsona juridiko independente gisa erabakitzeko duten gaitasuna kaltetu gabe.

confidencialidad, exclusividad y/o propiedad intelectual e industrial u otras obligaciones de cualquier naturaleza que los Agentes consorciados hubieren asumido en cada momento con terceros en virtud de vinculaciones contractuales.

d. En el ámbito de la Comunicación y Marketing, los Agentes consorciados cumplirán con las directrices comunes de comunicación e imagen del Consorcio definidas por este buscando la compatibilidad con las estrategias de posicionamiento de la marca de cada Agente consorciado.

e. En el ámbito de la Actividad Económico-Financiera, los Agentes consorciados enviarán al Consorcio información relativa al cumplimiento de los indicadores citados en el Decreto 109/2015, que les configura como miembros de la Red Vasca de Ciencia y Tecnología e Innovación.

f. En el ámbito del Soporte y servicios de apoyo de valor añadido, los Agentes consorciados mantendrán una participación activa en los órganos y cometidos del Consorcio, sin menoscabo de su capacidad de decisión como personas jurídicas independientes.

SEIGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S.-k ordezkari bat edukiko du Batzar Nagusian, eta dagozkion boto-eskubideen portzentajea izango du organo horretan. Estatutuen 10.7.c) artikuluan Partzuergoko kide diren gainerako eragileei esleitutako boto-eskubideen ehunekoa, Batzar Nagusiko boto-eskubideen % 40koa, behar bezala banatuko da.

SEXTO.- LEARIKER S. COOP. contará con un representante en la Asamblea General que ejercerá el % de los derechos de voto que le correspondan en dicho órgano. El porcentaje de derechos de voto atribuido a al resto de Agentes miembros del Consorcio en el artículo 10.7, c) de los Estatutos, consistente en el 40% de los derechos de voto en la Asamblea General, quedará correspondientemente distribuido.

ZAZPIGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S.-k ordezkari bat edukiko du Zuzendaritza Batzordean; ordezkaritza maila goreneko zuzendaritzako titularrari edo hura ordezkatzeko izendatu denari dagokio, estatutuen 13aren artikuluarekin bat.

SÉPTIMO.- LEARTIKER S. COOP. contará con un representante en el Comité Directivo del Consorcio, correspondiendo a la persona titular de la dirección de máximo rango o quien haya sido designada para sustituirle, conforme a lo especificado en el artículo 13 de los Estatutos.

ZORTZIGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S. entitateak ordezkari bat izango du Partzuergoko Batzorde bakoitzean, estatutuen 15. eta 16. artikuluetan jasotakoaren arabera:

a. LEARTIKER KOOP. S. entitatearen ordezkari bat arlo zientifiko-teknologikoko arduraduna izango da, edo hura ordezkatzeko izendatua izan denak partzuergoaren Batzorde Zientifiko-teknologikoan parte hartuko du. Batzorde Zientifiko-teknologikoko kideek bertan botoa emateko eskubidea izango dute, erabakiak hartu behar direnean.

b. LEARTIKER KOOP. S. entitatearen ordezkari bat industria-arloko arduraduna izango da, edo hura ordezkatzeko izendatua izan denak Partzuergoaren Industria Batzordean parte hartuko du. Industria Batzordeko kideek bertan botoa emateko eskubidea izango dute erabakiak hartu behar direnean.

OCTAVO. - LEARTIKER S. COOP. contaran con una persona representante del Centro en cada una de las Comisiónes del Consorcio, según lo recogido en los artículos 15 y 16 de sus Estatutos:

a. Una persona representante de LEARTIKER S. COOP., que será la persona responsable del área científico-tecnológica o quien haya sido designada para sustituirle participará en la Comisión Cientifico-Tecnológica del consorcio. Los miembros de la Comisión Científico-Tecnológica tendrán derecho de voto en la misma cuando sea preciso adoptar acuerdos.

b. Una persona representante de LEARTIKER S. COOP., que será la persona responsable del área industrial o quien haya sido designada para sustituirle participará en la Comisión Industrial del Consorcio. Los miembros de la Comisión Industrial tendrán derecho de voto en la misma cuando sea preciso adoptar acuerdos.

BEDERATZIGARRENA.- LEARTIKER KOOP. S. atxikitzeko eranskin hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eta, adostasuna adierazteko, aldeek Eranskin hau izenpetu dute, 2 aletan eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

NOVENO.- El presente Anexo de adhesión de LEARTIKER S. COOP. será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

En prueba de conformidad, las Partes suscriben, en 2 ejemplares y a un solo efecto, el presente Anexo en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

María Aranzazu Tapia Otegui

Presidentea/Presidente

Euskal Patzuergo Zientifiko-Teknologikoa / Consorcio Científico -Tecnológico Vasco – Research and Technology Alliance, BRTA

Amaia Egia Arronategi

Zuzendaria/Directora

LEARTIKER S. COOP.